

## ANTOLAKUNTZA ETA TEKNOLOGI BARRIAK

48370 BERMEO  
BIZKAIA

Erref.: 2020/IDA\_DOK0479

**JAGOKON SAILARI BARNE KOMUNIKAZIOA**2021/01/07(e)(a)n **2021 - 000000014** zenbakia daukan ALKATETZA DEKRETUA onartu dala jakinarazoten deutsu(e)t:

Xedea

COVID-19ak eragindako kasu positiboen intzidentzia tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino handiagoa izatearen ondorioz hartutako neurriak.

**Aurrekariak**Lehenengoa: Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia deklaratu zuen, COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera dela eta.

Aurrekoaren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Alarma-Egoera dekretatu zen Estatu osoan, eta horrek aukera eman zuen osasun-larrialdiko egoerari aurre egitea eta herritarren osasuna eta segurtasuna babestea.

Bigarrena: Ondoren, deseskalada prozesu bat hasi zen, hainbat fasetan antolatua, eta botere publikoek eta osasun agintariak neurriak hartzen jarraitu zituzten agerraldiak kontrolatzeko eta infekzioak geldiarazteko.

Besteak beste, hurrengo xedapenak hartu ziren:

- 2020ko ekainaren 9an, COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euspen eta koordinazio premiazko neurriak ezartzeko 21/2020 Errege Dekretu-legea onartu zen.
- 2020ko ekainaren 18ko Lehendakariaren 14/2020 Dekretuz, deseskaladarako 3. fasea gaindituztat eta, horrenbestez, alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak indargabetu eta "normaltasun berria" hastea onartu zen.
- 2020ko ekainaren 18an, Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero, beharrezko prebentzio-neurriak buruzko Agindua eman zuen.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E50005A06600P2R1V6R2Q0E4**Sinadurea eta data**NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 08/01/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/01/2021  
08:15:00EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DOK0479

Data: 23/10/2020

Lekua: Bermeo

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E50005A06600P2R1V6R2Q0E4



- 2020ko uztailearen 28an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emandako Aginduaren eranskina aldatzen duen Agindua eman zuen.
- 2020ko abuztuaren 14a, Segurtasun sailburuak, COVID-19 delakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta, Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, formalki aktibatzeke Agindua eman zuen.
- COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, Lehendakariak, 2020ko abuztuaren 15ean 17/2020 Dekretua eman zuen, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

**Hirugarrena:** Kasuen hazkunde kezkarriaren ondorioz, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera berria onartu zen Estatu osoan. Orobat, azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera hori luzatu egin zen, eta hasiera batean 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatzea aurreikusi da.

**Laugarrena:** Errege Dekretu horren 2. artikuluan aipatzen denez, autonomia-erkidego bakoitzean eta autonomia-estatutua duen hiri bakoitzean, autonomia-erkidegoko edo autonomia-estatutua duen hiriko lehendakaria izango da agintari eskudun delegatua, errege-dekretu honetan ezarritako moduan.

**Bosgarrena:** Aipatutako eskumenen eskuordetzearen ondorioz, Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretua eman zen, eta bertan osasun publikoaren arloko berariazko hainbat neurri zehaztu ziren.

**Seigarrena:** Aipatutako 36/2020 Dekretuan etengabeko ebaluazioa eta jarraipena egitea ezarri da, neurriak egoera epidemiologikora egokitzen direla bermatzeko, eta neurri horiek berregokitzeko beste erabaki batzuk hartu dira, besteak beste, abenduaren 10eko 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, testu bakar batean bateratzeari eta berariazko prebentzio-neurriak eguneratzeari buruzkoa, alarma-egoeraren deklarazioaren esparruan, egoera epidemiologikokoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2 sistemak eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

## Argudioak

**Lehenengoa:** Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko eta Mendekotasuneko zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 4ko Ebazpenaren bidez, argitaratu da COVID-19ak eragindako kasu positiboen azken 14 eguneko Intzidentzia Tasa Metatua 100.000 biztanleko 500ekoa edo handiagoa duten 5.000 biztanletik gorako udalerrien zerrenda. Horien artean dago Bermeoko udalerria.

Osasun larrialdi egoera horren aurrean, zenbait neurri hartu behar dira gaixotasunak udalerrian duen eragina arintzeko eta gutxitzeko. Testuinguru horretan, udal instalazioak eta eraikinak ixtea erabaki da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E50005A06600P2R1V6R2Q0E4

### Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 08/01/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/01/2021  
08:15:00

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DOK0479  
Data: 23/10/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E50005A06600P2R1V6R2Q0E4



**Bigarrena:** Hala, abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren eranskinaren 21. puntuan, erabilera publikoko parke eta kirol-eremuei buruzkoan, ezartzen da udalei dagokiela espazioa antolatzea eta garbiketa- eta higiene-baldintzak bermatzea.

**Hirugarrena:** Era berean, 926/2020 Errege Dekretuaren 12. artikulua dio administrazio bakoitzak indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak gordeko dituela, bai eta bere zerbitzuen eta langileen kudeaketa ere, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko.

**Laugarrena:** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.m) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.24. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, alkateari dagokio, beharrezko neurri egokiak hartzea, eta bere erantzukizunpean, hondamendia edo ezbehar publikoak edo horien arrisku larria gertatuz gero, Osoko Bilkurari berehala erabaki horren berri emanez.

Era berean, 7/1985 Legearen 21.1.a) artikuluan, alkateari dagokio udal gobernu eta administrazioa zuzentzeko eskumena ere.

## Erabakia

Hori guztia dela eta, honakoa erabakitzen dut:

**LEHENENGOA:** COVID-19a ugaltzearen ondorioz, hurrengo udal eraikin eta instalazioak publikoari ixtea, kasu positiboen intzidentzia tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino baxuagoa izan arte:

- Kultur Etxea
- Musika Eskola
- Liburutegia
- Nestor Basterretxea Aretoa
- Futbol zelaia
- Umeen jolaslekuak
- Euskalgunea
- Bekoportale
- Kabidxe
- Arraun elkarte
- Skate park
- BERHAZ

**BIGARRENA:** BERHAZ arreta zerbitzurako aurretiazko hitzordua beharko da. Halakorik izan ezean, ez dira artatuak izango.

**HIRUGARRENA:** Kultur Etxean dauden udal bulegoak funtzionatzen jarraituko dute, eta behar diren izapideak egiteko irekita egongo dira.

**LAUGARRENA:** Erabaki hau udaleko sailei jakinaraztea.

**BOSGARRENA:** Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea erabaki hau.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E50005A06600P2R1V6R2Q0E4

### Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 08/01/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/01/2021  
08:15:00

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DOK0479  
Data: 23/10/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia




**SEIGARRENA:** Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran dekretuaren berri ematea.

Honen guztiaren barri emoten deutsu(e)t jagokozan ondorioetarako.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .

CSV: 07E50005A06600P2R1V6R2Q0E4



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E50005A06600P2R1V6R2Q0E4

**Sinadurea eta data**

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 08/01/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/01/2021  
08:15:00

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DOK0479

Fecha: 23/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

